

A.Cavaillé-Coll et Fils-eko organoa (1854) Lekeitioko Andre Maria (Bizkaia)

A.Cavaillé-Coll et Fils-eko organoa, Aristides Cavaillé-Collen sinaduraz Euskal Herrian eraikitako lehen organoa izateaz gain, estatu Espainolean eraikitako lehenengoa organoa ere bada, 1854an egina.



Jose Javier Uribarreni eta Lekeitiokon Cavaillé-Coll organoari buruzko ohar historikoak:

1853ko abuztuaren 23an, Aristides Cavaillé-Collek proiektu bat bidali zion Santa M^a Lekeitioko Kabiloari, 54 notako bi teklatuko organo bat eraikitzeko. Organoak 20 notako pedala behar zuen eta ez luke berezko jokorik izango.

Tresna horrek 22 joko izango lituzke, G.O. pedalerako, 3 G.O.k (grabe-orokor-akutuetan banatuta) konbinazioa (mihiak eta mixturak), mihi Récit edo II teklatua bezala izendatua. Horretaz gain, goilara formadun pedal batez osotzen da, zeinak Recit edo II teklatuaren adierazpen-kutxa zabaltzen duen. Instrumentuak 25000 frankoko kostua izango luke. (1)

Jose Javier Uribarren (1791-1861), Lekeition jaiotako bankari paristarrek (Bordele eta Parisen artean zituen bere ondasunak), erosi zuen Lekeitiorako organo hori. 1831tik, Uribarrenek bere jaioterrian finkatu zuen udako bizilekua. 1857an, Basilika inguruan jauregitxo bat eraikitzea agindu zuen.

Uribarrenek instrumentu horretarako organista bat bilatzeko konpromisoa hartu zuen eta Juan M^a Blas de Altuna (1828-1868) aurkitu zuen horretarako .

1853ko irailaren 14an, parrokiarako Cavaillé-Coll organoa erosi aurretik, Uribarrenek Udalarari jakinarazi zion organista on bat nahi zuela. Bere burua eskaini zuen herriko organistak, Juan Jose Echeverriak, organista plaza eskura zezan, bere organo ikasketen gastuak ordaintzeko. Gogora dezagun, Juan Jose Echeverriak 23 urte zeramatzala Lekeitioko organo-jole moduan eta 30 baino gehiago instrumentalista; beraz, adinean aurrera zegoen pertsona zela pentsa dezakegu. (2)

1853ko Abenduaren 21ean Uribarren jauna, Cavaillé-Coll-en tailerrera joan zen organoaren lanak ikuskatzera. (3)

1854ko ekainaren 5ean, Cavaillé-Collek Uribarren jaunari bidalitako gutunean, organoa amaituta eta jotzeko moduan zegoela esan zion. Halaber, ekainaren 15etik 20ra bitartean findua izango zela jakinarazi zion. Azkenik, ekainaren amaieran Lekeitiora bidaltzeko moduan izango zela adierazi zion baita ere.

1854ko ekainaren 14an, Cavaillé-collek beste gutun bat bidali zion Uribarreni. Bertan, Juan Jose Santestebanek eskatutako organoaren hobekuntzen berri eman zion. Hauen ondorioz, beste 5.000 franko eskatzen zaizkio. Era berean, jakinarazten zaio organoa 1854ko ekainaren 22an, osteguna, probatu ahal izango zela. (3)

Ekainaren 20an Cavaillé-Coll-ek gonbidapen gutun bat bidaltzen du, jarraian aipatzen den entzunaldira joateko, hots, 1856ko Ekainaren 26an arratsaldeko 7:30etan, Vaugirard kaleko A.Cavaillé-Coll tailerretan Pariseko 94. eta 96. zenbakietan, egingo zen entzunaldira. Bertan, Lekeitiorako egindako musika tresna berria estreinatuko zuten, Lefébure-Wély (1817-1869), La Madeleine de Pariseko organistaren eskutik. (4)

La Madeleine Lefébure-Wély organo-jotzaileaz gain, beste organo-jotzaile batek hartu zuen parte ekitaldian, Prosper-Georges Simon (1788-1866) Saint Denis de Pariseko organisita. (5).

1854ko ekainaren 23an, Cavaillé-Coll-ek gutun batzuk idatzi zizkien garaiko agintariei, alde batetik, Parisen, otsailaren 26ko bileraren berri

emanez eta bestetik, 1854ko ekainean, organoaren erakustaldirako bilera zela eta bi jendarmeren presentzia eskatuz ordenari eusteko. (3)

1854ko irailaren 7an, Cavaillé-Collek beste gutun bat bidali zion Uribarreni, Thiemann eta Carloni organoa instalatzera, Lekeitiora bidaliko zituztela jakinaraziz. (3)

1854ko irailaren 13an, Jose Javier Uribarren udalarekin bildu zen, Lekeitioko Basilikako koruan organo berria jartzeko. Organoa iristean Udalak bere instalazioaren gastuei erantzuten die, beti ere Uribarrenek horretarako eskaintzen zituen 2000 errealek betetzeko falta denarekin. 1854ko abenduan, Lekeitioko alkateak Markinako alkatearen aurrean, Juan José Echeverriari organoa jartzen ikusteko eskaria egin zion. (2)

1860ko irailaren 22an Juan M^a Blas de Altuna Udaleko organista izendatu zuten 3000 errealeko soldatarekin. Bestalde, Juan Jose Echeverria parrokiako organista izaten jarraitzen zuen. 1860ko urriaren 9an oinarri batzuk ezarri ziren Altunaren eginkizunak mugatze aldera. (2).

Juan M^a Blas de Altuna; Prudent, Herrensneider eta Lefébure-Wély organista ospetsuen ikaslea izan zen eta ordurako, San Jose elizako (Konpainiako eliza) organista zen jada (6). Eliza horretan “Merklin Schütze & Cie orchestrium” delako organo bat zegoen. Egun, musika tresna hau Basilika honetan bertan dago.

1861eko apirilaren 4an Jose Javier Uribarren Parisen hil zen. Lekeitioko Udalak bere gorpua hiribilduan jasotzea erabaki zuen. 1863ko uztailaren 8an, Lekeitiarren esker ona adierazteko, “Jose Javier Uribarren” kalea bezala izendatu zuten, bere udako bizilekua finkatu zuen kaleari (2).

1863ko irailaren 12an, Juan Jose Echeverriak uko egiten dio organista izateari eta haren plaza oposiziora ateratzen da. Plaza hori, Altunak lortu zuen baina handik gutxira hil egin zen (1868ko ekainaren 12an) 40 urte zituela. Resurrección M^a de Azkuek gogoan zuen Blas de Altuna maisuaren enterruan, Bandak jo zuen hileta-martxa, Altunak berak egindakoa zela (Altunaren inguruan eztabaida dago Iparragirrek kantatzen zuen Gernikako Arbola ere, Altunarena zela uste da). (2)

Pascual Abaroa Uribarren (1825-1890), Jose Javier Uribarrenen iloba zenak, Lekeitiorrako hainbat ekarpen egin zituen bere osabak bezala. Pascual Abaroak hainbat enpresa jaso zituen herentziaz Paris eta Bordelen. Lekeitiori emandako gauz guztien artean garrantzitsuenetarikoa Parrokia Basilikaren zaharberitze eta handitze obra izan zen, 1883an gauzatua. (7)

1884an, Cavallé-Coll etxeak, 1854an eraikitako organoa desmuntatu eta modifikatu egin zuen. 6950 franko balio zituen eta Paskual Abaroak ordaindu zuen. Egindako modifikazioak zenbaterainokoak izan ziren ez dakigu. (8)

1910eko abuztuaren 22an, organoari berrikuspen orokorra egiteko, Ferdinand Princek 3000 pezetako aurrekontua egin zuen. 1930ean Juan Melcherrek hainbat aldaketak egin zituen: transmisio bidezko pedal-erregistroak gehitu, kotsola pertsiana bidez itxi eta aurreratu. 1977 eta 1990ean Usobiaga anaiek egindako organoaren berrikusketa lanetan, ez zen instrumentuaren oinarrizko ezaugarriei eragiten dien aldaketarik egin.

1. MAXIMO, Enrique: Murtziako Katedraleko Merklin Schütze organoa. Caja Murtzia. Obra Kulturala, 1994. 158. orritik 161.era.
2. Lekeitioko Udal Artxibotik 1800 eta 1900 bitartean lortutako datuak, Maite Garamendi, Udaleko Artxiboko teknikaria. Lekeitio.
- 3.ESCHBACH, Jesse: Aristides Cavaillé-Coll Vol.1 A Compendium of known Stoplists 69,199,200 & 201 orriak.
4. DOUGLASS, Fenner: Cavaillé-Coll & the Musicians, LettresIV, Vol.2 Sunbury, AEB, 1980. 921. orrialdea, 2796. zk.
5. Parisko Revue et Gazette Musicale (1854) Vol.21 Pag.214 & Pag.249
6. ZAVALA, Vicente: Duranguenses ilustres en el callejero de la vida. Ed. Mensajero, 1999. Orrialdea: 265-285.
7. DUO, Gonzalo: Lekeitio XIX. mendean eta José Javier de Uribarren (1791-1861). Ed. Eusko Ikaskuntza, 1994. Eusko Ikaskuntzako Historia-Geografia, 23,1995 edo Gonzalo Duo. Copyprint-EREL, S.L.Pamplona, 1998.
8. HUYBENS, Gilbert: Aristide Cavaillé-Coll. Liste des travaux exécutés. Opus List. Orgelbau-Fachverlag rensch, D-7128 Lauffen/Neckar, 1985. Orriak, 16,54

A.Cavaillé-Coll et Fils organoaren XEDAPENA (1854)

54 notako 2 eskuzko teklatu eta 30 notako pedal bat. Jatorrian, pedalerako 20 nota ziren. Teklatuetarako sistema mekanikoa eta 1930etik pedalerako sistema mekaniko-pneumatikoa.

I Teklatua/G.O.	II Teklatua/Récit	Pedala/Krokadurak
Flautatzea 26 Bioloia 26 Flautatzea 13 Txirula harmonikoa 13 Bioloia 13 Unda maris 13 Zortzigarrena Tapadillo Dozena Hamabostaldia Beteta 3-4 hil. Tronpeta-nagusia 13-26 Errege tronpeta 13 Klarina	Zeharkako txirula 13 Biola 13 Aingeru-ahotsa 13 Zortzigarren harmonika Octavin harmonikoa Giza ahotsa 13 Tronpeta erreala 13 Fagota eta Oboea 13	Subajo 26 Violón 13 I/P Appelé des Anches du Ile ou de Récit, l'Appel de bas des Anches et des Mixtures du ler ou de G.O., l'Appel général des Anches et les Mixtures du G.O., l'Appel des Aigus des anches et de Mixtures du ler ou de G.O, Accouplement des claviers II/I, Trémolo du Ile ou Récit, Expression du Ile ou de Récit.

Teklatuak



Erregistro-tiratzaileak



Erregistro-tiratzailak



Pedala eta lotzeak, adierazteko zapata



LEKEITIOKO “A.CAVAILLÉ-COLL & FILS (1854)” DELAKOAREN BIBLIOGRAFIA/DISKOGRAFIA

AZKUE,ELIZONDO,ZAPIRAIN :Gipuzkoako Organoak, Kutxa, 1998.
Pág.30,56

CLASTRIER,Francoise.,CANDENDO,Oscar : Órganos franceses en el País Vasco y Navarra (1855-1925).Eusko Ikaskuntza.1994,pág.156

DUO,Gonzalo : Lekeitio en el siglo XIX y Jose Javier de Uribarren (1791-1861). Ed.Gonzalo Duo.Copyright EREL,SL. Pamplona-Iruña, 1998.Pág.21,38 y 39.

<http://www.euskomedia.org/PDFAnIt/vasconia/vas23/23137162.pdf>

ESCHBACH,Jesse : A.Cavaillé-Coll Vol1 A compendium of known stoplists Pages : 69,199,200 & 201

DOUGLASS,Finner : Cavallé-Coll & The Musicians ,Vol II, Sunbury, USA. 1980 Lettres IV Pág.921

ELIZONDO,Esteban : La organería Romántica en el País Vasco y Navarra(1856-1940) Ed. Universidad del País Vasco, 2001.Pág.104

HUYBENS,Gilbert : Aristide Cavallé-Coll.Liste des travaux exécutés. Opus List. OrgelbauFachverlag rensch,D-7128 Lauffen/Neckar, 1985. Pág.16,54

<https://www.cavaille-coll.fr/ccorglista.html>

INARAJA,Angel : El órgano Cavallé-Coll de la Basílica de Santa M^a del Coro de S.Sebastián. Publicaciones del Grupo Dr.Camino de Historia Donostiarra.Obra cultural de la Caja de Ahorros Municipal de S.Sebastián. 1973.Pág.18,20.

LA ESPAÑA : periódico/año VII núm.1930

Fecha 15-7-1854 página 2 columna 4 (Biblioteca Nacional de España)

LA ESPERANZA : periódico monárquico/ año X nº 2996 Fecha : 28-7-1854 pág.4 columna 2 párrafo 2 (Biblioteca Nacional de España)

LE MÉNESTREL Journal Hebdomadaire 21^{ème} année Dimanche 2-7-1854 pág.1 (final) y pág.2 primera columna. (BNF Biblioteca Nacional de Francia)

LÓPEZ,Felipe: Órganos de la Comunidad de Madrid. Educación y Cultura.Dirección General de Patrimonio Cultural Comunidad de Madrid.Pág.107.

MÁXIMO,Enrique : El órgano Merklin Schütze de la Catedral de Murcia.Caja Murcia. Obra cultural,1994.Pág.158 a 161

OCAMICA Y GOITISOLO,Francisco : Lekeitio Gure Herria. Ed. Mensajero, 2004.Pág.93 y 94.

OLEA,Aitor : Euskal Herriko organuak/Órganos de Vasconia N°1
aArus011.11/10/2003

<http://organoa.blogspot.com.es/2006/12/organista.html>

REVUE ET GAZETTE MUSICALE 1854 VOL21.Pages 214 & 249

<http://www.archive.org/details/revueetgazettemu1854pari>

SCHMITT,Georges : Nouveau manual complet de l'organiste Vol.1 pág
325,326. Paris:Librairie Encyclopédique de Roret,1855